

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa bateko **oinarrizko baliabideak** enpresak funtzionatzeko eta bere jarduera egiteko behar dituen elementu eta tresna guztiak dira.

Gure produktua saldu ahal izateko, gaur egungo egoera azaltzen diogu bezeroari, beraien beharrak entzunez eta konponbide bat bilatuz. Lehenik eta behin energia arazo bat dutela azaldu behar diegu, gure produktua erosteko.

Gure enpresa jendearengana iristeko, iragarkiak, folletoak, kartelak.. banatu edo jarriko ditugu kalean, gure inguruko herrietan. Online ere sare sozialak eta web orria izango ditugu, gure produktua saltzeko eta promozionatzeko. Administrazio publikoen kasuan, gu joango ginen gure produktua aurkeztera. Aurkezpenak egingo genituzke udaletxeetan adibidez. Tokiko egunkari eta komunikabideetan ere promozionatuko genuke, jende gehiagorengana iristeko.

Gure proiektua edo enpresa aurrera eramateko diru laguntzak beharko ditugu. Horretarako bankuari mailegu bat eskatuko diogu eta diru laguntzak eskatuko dizkiegu gure bazkideei.

Mailegua, gure enpresa sortzeko eta gastuak kubritzeko beharko dugun diru kantitatea izango da, makinen gastuak, lokala...

Bazkideen ekarpena **%30** izango da. Gure guztizko gastuak **199.726 €** direla jakinda denen hartean **60.000 €** jarri beharko ditugu, hau da, bakoitzak **15.000€**.

Bankuari **%70** eskatuko diogu **199.726 € – 60.000 € ≈ 140.000 €**.

Guk jarri beharreko dirua bazkideen eta gure inguruko entitateen laguntzarekin lortu dezakegu, adibidez, EEE, Eusko Jaurlaritza, Udalak, eta kooperatibak.

- [EVE](#)

- Guztira **91 milioi €** banatu ziren 2024an, plan ezberdinetan.
- Proiektu bakoitzean batez beste **30% inguru** eman zen (proiektuaren kostuaren arabera).
- [Eusko Jaularitza](#)
- - Gehienez **10.000 €** banatzen ditu Eusko Jaularitzak gu bezalako proiektuak egiteko.
- [Rescoop EU](#): enpresa honek Energia berriztagarrien proiektuei **kooperatiben bidez eta finantza tresnen bidez** laguntzen die. **5.000 €** eta **250.000 €** inguru eman ditzake mailegu moduan inbertsio bat egiteko.